

Liburuak

KRITIKA

Ura nonbait

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

BITAN EDO HIRUTAN irakurri dut *Ádám Bodorren Artzapezpikuaren bisita* eta esan beharra dut, oraindik ere, nahasmen sentsazioa ezin izan dudala baretu. Egarriz uzten duen eleberria da, edo hala sumatu dut nik, berriro hastapenera itzultzera gonbidatzen duena baina, edozein modutan, behin eta berriz irakurrita ere zapore mingotsak irauten du, testuaren laguntzaz ezabatu ezingo balitz bezala. Testua utzi eta haren oihartzunak barruan irauten duela konturatu naiz; asetzen ez nauen zer bat nabaritzen dut.

Berez eleberriaren oinarria simplea da; Gabriel Ventuza Bogdanski Dolina izeneko herrira iritsi da aitaren gorpuzkiak eskuratzeko asmoz, baina heldu bezain laster arropa eta dirua lapurtu dizkiote. Ventuza atzerritarra kapilau militar lanetan aritu beharko da, Izolda esparruko gaixoak aitortzen, bere aitaren gorpua hobitiki atera eta jaioterrira itzuli ahal izateko. Pertsonaien inguruko aurre aurkezpenik gabe narrazioak gertakari konkretu batetik aurrera eta atzera egiten du: hilabete batzuk aitzin Senkowitz ahizpek isolamendu zentrotik ihes egin zuten eta orain Ventuza atzerritarrak atxilotu egin ditu. Bitartean Bogdanski Dolina, Zilava izeneko artzapezpikuaren bisitarako prestatzen da.

Eleberriaren haria bi gertakari horien aurrekarietan egituratuz joango da, eta horien azalpenean gorpuzten da pertsonaia desberdinen gaineko istorioa. Egitura zatikatua bizitza zatikatuen ispilu gisa funtzionatzen du; irakurlearen esku uzten da osotasun bat eraikitzeko falta diren hutsuneen bilaketa, nahiz eta errazegi suertatu ez. Unai Elorriaga eleberriaren itzul-

tzaleak azpimarratu duenez, zatikatze hori izan da gehien txunditu duena, haren hitzetan “zatikatua ez dagoela usterraino” iristen garelarik. Hala ere, ene ustez, horixe izan daiteke eleberriaren ezaugarririk nahasgarriena, izan ere askotan haria jarraitzeko oztopoak ezartzen ditu, bidean zer edo zer galdu dugulakoaren sentsazioa eraginez eta horrexegatik, agian, hastapenera itzultzera behartzen du behin eta berriz.

Diktadura erregimenaren izugarrikeriak gaitzat harturik, *Ádám Bodorrek* kristau ortodoxoak kokatu ditu botere hierarkiaren gailurrean. Isolamendu esparruetan biltzen diren protagonistak ez dira errealitate zuzenetik berreskuratu izan diren betiko juduak ezta ijitoak ere, gizakiaren alderdirik suntsitzaileena muturreraino eramanez, edozein herrialdetako biztanle izan daitezkeen biriketako gaixoak eta “inguruko jendilajea” (13. orrialdean) baizik.

Boterearen gehiegikeriak salatzeke hamaika moduetatik Bodorrek tinko eta lehorrena aukeratu du. Hitz bakoitzari esanahi posible guztiak erauzi behar izate horretan ezkututzen da eleberriak eragiten duen egarría asetzeko sekretua. Onartu beharra dago eleberri konplexua dela baina gezurra badirudi ere, lehortasunik handiengan ur tantak sortzen dira. ■

Artzapezpikuaren bisita.
Ádám Bodor.
 (Itzultzailea: Unai Elorriaga).
 Elkar.
 130 orrialde.
 14,50 euro.

